# PREMIO TECNALIA A LA **MEJOR TESIS DOCTORAL**

# **DOKTORETZA TESI ONENA**REN TECNALIA SARIA

BASES DE LA CONVOCATORIA
DEIALDIAREN OINARRIAK

## Edición 2018: **“La Transformación Digital”**

## 2018ko edizioa: **“Eraldaketa digitala”**

tecnalia Inspiring Business

www.tecnalia.com

PREMIO TECNALIA A LA **MEJOR TESIS DOCTORAL** | Bases de la Convocatoria 2018

## Primera. Objetivo.

TECNALIA es un Centro de Investigación y Desarrollo Tecnológico referente en Europa, con 1.400 expertos de 30 nacionalidades, orientados a transformar la tecnología en PIB para mejorar la calidad de vida de las Personas, creando oportunidades de negocio en las empresas.

En su labor de búsqueda de conocimientos tecnológicos y para lograr la mejor solución a los problemas de su entorno, TECNALIA quiere apoyar en su trabajo y/o en su formación a personas o grupos que destaquen por su capacidad e iniciativa, competencia científica o tecnológica.

Con este Premio, TECNALIA **quiere promover la realización de Tesis Doctorales** que van a tener un impacto empresarial a través de la Investigación y el Desarrollo Tecnológico, orientada a su rápida aplicación en la Industria.

## Segunda. Temas.

Las Tesis presentadas deberán estar relacionadas con las soluciones tecnológicas que faciliten la **Transformación Digital** de las Empresas, especialmente PYMEs, para convertirse en Industrias 4.0.

Sin ser excluyentes, **algunos de los temas de la Tesis** pueden ser: Big Data, Ciberseguridad, Impresión 3D, Computación en la nube y HPC (High Performance Computing), Ingeniería de Software, IoT (Internet of Things), 5G y comunicaciones avanzadas, Sensórica, Visión Artificial, Robótica cognitiva, Procesamiento del Lenguaje Natural, Bio y neuro interfaces, Wearables y sistemas portables de interacción con personas, Realidad virtual, realidad aumentada, realidad mixta, o Inteligencia Artificial.

## Tercera. Candidatos.

Podrán optar a este premio los doctores que hayan obtenido su título entre el **1 de enero de 2016 y el 31 de enero de 2018** con una Tesis doctoral sobre la temática mencionada, en una **universidad española o europea.**

Las Tesis podrán presentarse en cualquiera de los idiomas oficiales de los países de la Unión Europea; si bien es obligatorio, para facilitar su correcta valuación, **adjuntar una copia en castellano o en inglés.**

## Cuarta. Premio.

Habrá una **única Tesis ganadora** que recibirá un premio en metálico:

- 12.000 € para el Autor de la Tesis.
- 3.000 € para el Director o para repartir entre los Directores de la Tesis.

El importe del Premio estará sujeto a la retención aplicable según la legislación vigente.

El Jurado podrá, si así lo estima oportuno, establecer las **Menciones Especiales** que considere convenientes entre las Tesis presentadas, sin que tales Menciones conlleven dotación económica alguna.

## Quinta. Jurado y fallo del Premio.

El jurado para la concesión del Premio TECNALIA 2018 a la mejor Tesis Doctoral estará compuesto por personas de reconocido prestigio del entorno científico-tecnológico y empresarial.

La decisión del jurado será inapelable y contra la misma no cabe recurso alguno.

El fallo se hará público en el momento de la entrega del Premio a su ganador.

## Sexta. Criterios de evaluación.

El jurado que concederá el Premio tendrá en cuenta los siguientes criterios de evaluación:

1. **Aplicabilidad** de la investigación a una empresa industrial.
2. **Relevancia** de la investigación en las áreas científico-tecnológicas del concurso.
3. **Impacto** de la investigación en los medios científicos de difusión (revistas, patentes, etc.). Premios y otras menciones.
4. **Presentación:** redacción, calidad de datos y gráficos, estructura de contenidos.

## Séptima. Plazo y forma de presentación.

El plazo de presentación de las Tesis finaliza el **15 de abril de 2018.**

Toda la documentación será aportada en **formato digital** (PDF).

Las Tesis deben enviarse por correo electrónico a elena.arce@tecnalia.com

Se deberá hacer constar expresamente en el envío "Premio TECNALIA a la mejor Tesis Doctoral".

## Octava. Documentación.

Los participantes deberán aportar:

- Resumen ejecutivo de la Tesis. Número de páginas y apartados.
- Tesis completa.
- Certificado oficial de la universidad que expide el título de doctor, indicando la calificación obtenida, nombre del director/es y miembros del tribunal.
- Acreditación de si tiene algún premio o mención europea o internacional.
- Situación de las publicaciones producidas con la Tesis Doctoral.
- Datos personales de contacto y un curriculum vitae resumido del candidato.

## Novena. Aceptación.

La presentación de candidaturas supone la aceptación íntegra de estas bases y la decisión del Jurado.

No se devolverán las Tesis presentadas.

El Jurado se reserva el derecho de declarar desierto el Premio.

## Décima. Derechos.

TECNALIA y los participantes reconocen expresamente que los derechos de propiedad industrial e intelectual derivados de cada trabajo optante al Premio corresponden al candidato autor de dicho trabajo.

No obstante, se reconoce a TECNALIA la facultad de utilizar el nombre e imagen del autor cuyo trabajo resulte premiado y las oportunas referencias a su trabajo en cuantas entrevistas y actos que TECNALIA pueda desarrollar en relación a la organización de los Premios y a su difusión, incluyendo reseñas de los contenidos de las Tesis premiadas en las publicaciones impresas y digitales de TECNALIA y, en este último caso, por un período de tiempo no superior a seis meses y sin que suponga explotación económica alguna de los trabajos.

**DOKTORETZA TESI ONENA**REN TECNALIA SARIA | 2018Ko Deialdiaren Oinarriak

## Lehena. Helburua.

Ikerketa eta garapen teknologikoko zentro bat da TECNALIA, erreferentziakoa Europa osoan. Hogeita hamar herrialdetako 1.400 aditu ditu, guztiak ere teknologia BPG bihurtu eta gizakion bizi-kalitatea hobetzen biziki saiatzen direnak, enpresentzat negozio-aukerak sortuz.

Ezagutza teknologikoak bilatzeko eta bere inguruneko arazoei konponbiderik onena emateko, TECNALIAk ahalmen eta ekimenagatik eta gaitasun zientifiko edo teknologikoagatik nabarmentzen diren pertsona edo taldeei beren lanean eta/edo prestakuntzan lagundu nahi die.

Sari honekin, industrian bizkor aplikatzera bideratuta dauden eta ikerketa eta garapen teknologikoaren bidez inpaktu enpresarial bat izango duten **doktoretza-tesiak egitea sustatu nahi du** TECNALIAk.

## Bigarrena. Gaiak.

Aurkezten diren tesien gaiak enpresek, batez ere ETE-ek, industria 4.0 bihurtzeko egin behar duten **eraldaketa digitala** errazteko soluzio teknologikoei buruzkoak izan behar dute.

Esate baterako, **gai** hauek erabil daitezke tesietan, besteak beste: big data, zibersegurtasuna, 3D-ko inprimaketa, hodei-konputazioa eta HPC (High Performance Computing), sofware-ingeniaritza, gauzen Internet (IoT), 5G eta komunikazio aurreratuak, sentsorika, ikusmen artifiziala, robotika kognitiboa, hizkuntza naturalaren prozesamendua, biointerfazeak eta neurointerfazeak, soinean eraman daitezkeen gailuak eta pertsonekin interakzioan aritzeko sistema eramangarriak, errealitate birtuala, errealitate areagotua, errealitate mistoa eta adimen artifiziala.

## Hirugarrena. Hautagaiak.

Sari honetara aurkez daitezke aipatutako gaiei buruzko doktoretza-tesiren batekin titulua **2016ko urtarrilaren 1etik 2018ko urtarrilaren 31 bitartean** eta Espainiako edo Europako unibertsitateren batean lortu duten doktoreak.

Europar Batasuneko herrialdeetako edozein hizkuntza ofizialetan aurkez daitezke tesiak. Dena den, nahitaezkoa da, behar bezala ebaluatzeko, **kopia bat gaztelaniaz edo ingelesez eranstea.**

## Laugarrena. Saria.

**Tesi bakarra izango da sariduna**, eta sari hauek jasoko ditu dirutan:

- 12.000 € tesiaren egilearentzat.
- 3.000 € tesiaren zuzendariarentzat edo tesi-zuzendarien artean banatzeko.

Sariaren zenbatekoa indarrean dagoen araudiaren araberako atxikipenaren mende egongo da.

Epaimahaiak, egoki baderitzo, aurkeztutako tesien **aipamen bereziak** egin ditzake, baina aipamen horiek ez dute sari ekonomikorik izango.

## Bosgarrena. Epaimahaia eta sariaren erabakia.

Doktoretza Tesi onenaren 2018ko TECNALIA saria emateko epaimahaia ingurune zientifiko-teknologiko eta enpresarialeko izen handiko pertsonek osatuko dute.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta ezin da errekurtsorik jarri haren kontra.

Erabakia irabazleari entregatzen zaion unean egingo da publiko.

## Seigarrena. Ebaluazio-irizpideak.

Saria emango duen epaimahaiak ebaluazio-irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

1. Ikerketa industria-enpresa batean **aplikatzeko aukera**.
2. Ikerketak lehiaketaren arlo zientifiko-teknologikoetan duen **garrantzia.**
3. Ikerketak hedabide zientifikoetan duen **inpaktua** (aldizkariak, patenteak, etab.). Sariak eta beste aipamen batzuk.
4. **Aurkezpena:** Idazkera, datuen eta grafikoen kalitatea, edukien egitura.

## Zazpigarrena. Aurkezteko epea eta modua.

Tesien aurkezpen-epea **2018ko apirilaren 15an** amaitzen da.

Dokumentazio guztia **formatu digitalean (PDF)** aurkeztu behar da.

Tesiak bidali behar dira helbide honetara: elena.arce@tecnalia.com

Bidalketan hau adierazi behar da espresuki: "Doktoretza Tesi onenaren TECNALIA saria".

## Zortzigarrena. Dokumentazioa.

Los participantes deberán aportar:

- Tesiaren laburpen betearazlea. Orri- eta atal-kopurua.
- Doktore Tesi.
- Doktore-titulua igorri duen unibertsitatearen ziurtagiri ofiziala, lortutako kalifikazioa eta zuzendari(ar)en eta epaimahaiko kideen izenak.
- Europan edo nazioartean sari edo aipamenik badu, haren ziurtagiria.
- Doktoretza-tesiarekin sortutako argitalpenen egoera.
- Harremanetarako datu pertsonalak eta hautagaiaren curriculum vitae labur bat.

## Bederatzigarrena. Onarpena.

Hautagai aurkezteak berekin dakar oso-osorik onartzea baldintza hauek eta epaimahaiaren erabakia.

Ez dira itzuliko aurkezten dira tesiak.

Epaimahaiak beretzat gordetzen du saria eman gabe uzteko eskubidea.

## Hamargarrena. Eskubideak.

TECNALIAk eta parte-hartzaileek espresuki aitortzen dute Sarira aurkeztutako lan bakoitzetik eratorritako jabetza industrial eta intelektualeko eskubideak lan horren egileari dagozkiola. Hala ere, TECNALIAri aitortzen zaio saritutako lanaren egilearen izena eta irudia erabiltzeko eskubidea eta lan horri dagozkion erreferentziak egitekoa TECNALIAk sarien antolaketarekin eta haien hedapenarekin lotuta egiten dituen elkarrizketa eta ekintza orotan; aitortzen zaio, halaber, TECNALIAren paperezko argitalpenetan eta digitaletan saritutako tesien edukien aipamenak egiteko baimena ere, gehienez sei hilabetez eta lanen ustiapen ekonomikorik eragin gabe.

blogs.tecnalia.com

**TECNALIA**
Parque Científico y Tecnológico de Bizkaia
C/ Geldo. Edificio 700
E-48160 Derio (Bizkaia)
Tel.: +34 902 760 000

elena.arce@tecnalia.com

tecnalia Inspiring Business

www.tecnalia.com